

Informazioaren Teknologia

INFOTECH

IKTak Logistikan: Hornikuntza katearen eraginkortasuna hobetzen




Integratutako Proiektu Zientifiko Teknologikoa, Berezia eta Izaera Estrategikoduna. Bere helburu nagusia enpresa espainiarretan lehiakortasun maila handitzean datza, eredu logistikoko ezagueren, metodologiaren eta praktiken garapenaren bitartez, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilpena ustiatuz eta ingurune globalizatu batetan hornikuntza kateen eraginkortasun handiagoa eskainiz.



Kalitatezko Ontzien Kontrolerako Irudien Tratamendua

VICON ontzien dekorazioarekiko Ikuspegi Artifizialaren bitartez automatikoki ikuskatzeko erreminta bat da. VICONek inprimatze prozesuan dekorazioak pairatzen dituen deformazioak jasateko eredu egokitzailen autoikasketa algoritmoak inplementatzen ditu, elementu zuzenen eta akastunen artean diferentziatzeko perdoi egokiak ezarriz.



Logistika sektoreko langile mugikorrentzako kokalekuan oinarritutako zerbitzuak



Europa Inguruko 6. Programako Proiektu Integratuak lan inguru ezberdinetako langile mugikorreren sorta zabalarentzat "Kokalekuan Oinarritutako Zerbitzuak" garatzea du helburu. LIAISONek teknologia eta estandar zorrotzak EGNOS eta GALILEO programetatik eratorritako berrikuntzekin konbinatzen ditu, baita telekomunikazio sare berri eta heterogeneoekin ere (GSM, UMTS, TETRA y WLAN).

Ikerketa Estrategikoa Turismoan



ETORTEK Ikerkuntza Estrategikorako Programa barruan gauzatzen den eTourGUNE proiektuak eTurismo arloan I+G+b-ren alde egitea du helburu. Besteak beste, eduki turistikoen erosketara, biltegiak eta kudeaketa ahalbidetuko duten proiektuak garatzen ditu, balio kateko aktore guztientzako modu erraz eta jasangarria izaki. Zerbitzu turistikoa aurreratu eta

integratuak eskaintzeko ezagueraren eta garapen teknologikoa ere sustatuko ditu, alegia parte-hartzea, mugikortasuna eta elkarrekintza hobetzeko.




Turismo, Aisialdi eta Entretanimenduaren sektorerako ICTak

OCIOMETek meteorologia-informazio sistema bat diseinatu eta garatuko du aisialdi-jarduerarako. Erabiltzaileei eguraldiaren egoerari buruzko informazioa bidaliko zaie. Aurrez, horien profila zehaztuko da eta egoera

klimatologikoa on eta fidagarriki ematen direnean aukeratutako aisialdirako jarduerak (nautika, golfak, turismo aktiboa edo eskia, besteak beste) praktikan jarri ahal izango dutela jakinaraziko zaie.



Akuario eta Itsas-Museoetarako Teknologia Semantikoak



Akuarioetako eta itsas-museoetako eduki digitalen sarbide eta erabilpena hobetzeko ContentPlus programa europarraren barruan gauzatuko den proiektua da. Horretarako, Teknologia Semantikoaren oinarritutako azpiegitura teknologikoa garatuko da, eta horri esker, balio erantsia eman ahal izango zaie kide parte-hartzaileen bakarkako bildumei. Hala, bisitari europarrari espazio global eta birtual bat aztertzei aukera emango zaio, arlo horretako ikaskuntza prozesuei ere laguntza eskainiz.